



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2010-04-08

VIII. URTEA 1.969. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Gaztetxoak ederki ari dira Topic-en egun hauetan; bihar izango dute euren lana pazartzeko aukera. I. TERRADILLOS

PAPER ANTZERKIRA HURBILTZEKO AUKERA

TOLOSA Gazteek zein helduek bihar aurkeztuko dituzte jendaurrean egun hauetan Topic Txotxongiloen Zentroan egindako eskulanak 2



Eli Hilario, Itxaropena Elordi eta Agustin Aduriz. A. IMAZ

Produktuak merkeago 'Stock and Braderie' azoka berezian

TOLOSA Larunbatean eta igandean izango da Alde Zaharra Dendak eta Igarondoren ekimena 3

Margolanak eta bestelako obra ugari Errekan

VILLABONA Idoia Iturri artista iruindarrak taberna bat aukeratu du bere lanak erakusteko 4

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

» INKESTA

1. Gogoko al duzu paper antzerkia? 2. Zer da ikastarotik gehien gustatzen zaizuna? 3. Zer ipuin aukeratu duzu antzerkitxo egiteko? 4. Horrelako tailer batean parte hartzen duzun lehendabiziko aldia al da?



«Gauzei forma ematea gogoko dut»

Aitor Perez
TOLOSA, 5 URTE.

1. Gustatzen zait, eta gustura ari naiz etortzen tailerrera.
2. Moztea, gauzei forma ematea, asko gustatzen zait.
3. Hiru txerri txerriak ipuina egingo dut.
4. Ez da lehendabiziko aldia, lehen ere izana nintzen Topic-en. Izan ere, txotxongiloak asko gustatzen zaizkit.



«Txotxongiloen tailerrak asko gustatzen zaizkit»

Ane Blanco
TOLOSA, 5 URTE.

1. Bai, eta oso gustura nator ikastarora.
2. Margotzea atsegin dut nik bereziki.
3. Txanogorritxoren ipuina aukeratu dut.
4. Beste tailer batean ere izan nintzen txotxongiloak egiten, eta oso ondo pasatu nuen. Gustatzen zaizkit ikastaro hauek.



«Moztea, margotzea... denetarik gustatzen zait»

Beñat Maiza
TOLOSA, 9 URTE.

1. Gustatzen ari zait ikastaro hau.
2. Egia esan denetik egitea dut gogoko: moztea, margotzea, ipuina sortzea...
3. Mortadela eta Filemonen abenturak irudikatuko ditut.
4. Ez da lehen aldia, eta uste dut gehiagotan ere etorriko naizela, oso ondo pasatzen baitut etortzen naizenetan.



«Margotzea asko gustatzen zait»

Nerea Alargunsoro
TOLOSA, 7 URTE.

1. Bai. Asko gustatzen zait, eta ederki ari gara pasatzen.
2. Niri guztia gustatzen zait, baina bereziki, pintatzea atsegin dut.
3. Sirenatxo aukeratu dut nire antzerkia egiteko.
4. Lehen ere izana nintzen txotxongiloen zentroan, eta oso ondo pasa nuen, berritua ere errepikatu nahi nuen.



«Lehendabiziko aldia da, eta oso gustura nago»

Alex Vaillant
TOLOSA, 8 URTE.

1. Bai, gogoko ditut txotxongiloak, eta ederki ari naiz igarotzen.
2. Txotxongiloak egiten ikastea gustatzen zait.
3. Alemaniara naiz jaiotzez, eta nire lurraldeko ipuin bat aukeratu dut emanaldirako.
4. Lehendabiziko aldiz etorri naiz Topic-era, eta ederki ari naiz pasatzen.

Papera eta sormenarekin eginiko antzerkia

Gizartea » Gaztetxoei nahiz helduei zuzenduriko paper antzerki tailerra ari dira ematen egunotan Topic-en; bihar, ikasitakoarekin emanaldia egingo dute.

INIGO TERRADILLOS

Teknologiaz inguratutik bizirik garen garaia hauean ia pentsaezina dirudi gaztetxoak ordenagailurik edota bideojokorik gabe dibertitzen ikustea. Berrikuntza horiekin, ordea, bigarren maila batera igarotzen dira betiko jokoei gordetzen dituzten ezaugarriak, hau da, sormena lantzea, irudimena piztea, gauzak tartekatzen ikastea edota hezkuntzan eragitea bezalakoak. Bada, balore horiek gaztetxo nahiz helduei ari dira sustatzen egunotan, Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan, paper antzerki tailerrean.



Atzo paper antzerkia egiten hasi ziren tailerrean parte hartzen ari diren 15 gaztetxoak. Gaur euren ipuinetako pertsonaiak egingo dituzte. I. TERRADILLOS



Bost urtetik gorako 15 ikasle zuzenduriko dago gaztetxoaren ikastaroa. Herenegun hasi ziren, eta bihar izango dute azken eguna. Egun hauetan *Txanogorritxo*, *Sirenatxo*, *Pinotxo*, *Hiru txerri txerriak* edota *Mortadela* eta *Filemonen*

abenturak paper antzerkian irudikatzen ikasiko dute. Atzo eszenatokia apaintzen aritu ziren, bakoitzak aukeratu duen ipuinaren arabera osagaiak marraztuz. Norbere ipuinean azaltzen diren pertsonaiak eraikiko dituzte gaur, eta behin hori amaituta, horri gutziri bizia ematen ikasiko dute.

Eskulana baino gehiago

Ana Laura Barros da ikastaroaren arduraduna. 2004ean hasi zen paper antzerkia lantzen, eta ordutik lau antzezlana aurkeztu ditu. Berak azaltzen duenez, «antzerki mota honekin ia ez zen azken urteetan antzezlana egiten, eta jendeak bilduma egiteko baino ez zituen erabiltzen; orain, ordea, badirudi pixkanaka piztu doala». Tailer honekin ere, ahazturik zegoen antzerkia egiteko modu hau zabal-tzea dute helburu, besteak beste.

Parte-hartzaile bakoitzak bere paper antzerkia egiten ikasten du, norberak aukeratutako ipuinaren arabera diseinatuz. «Hori guztia, denon eskura dagoen materialarekin egiten dugu, oinarri bezala papera izanik». Dena den, eskulana egiten ikastea baino gehiago da, «izan ere, batetik, paper antzerkiaren diseinua egitea dago, hau da, forma eman, margotu eta pertsonaiak eraikitzea, baina ondoren, horrekin guztiarekin antzezlana egiten ikasi beharra dago, eta teknika horiek ere lantzen ditugu tailerrean».

Bestalde, ikastaroaren lehen unetik gaztetxoak gozatzen ari direla azaltzen du Barros: «Papera ederki ezagutzen duten materiala da, askotan erabili baitute, eta horregatik segituan hasten dira lanean denborarik galdu gabe; asko gustatzen zaie». Antzezlana irudi-

katzeko orduan, jendeari begira aurkeztea kostatzen zaiela gehien dio ikastaroaren arduradunak: «eurentzako egingo balute bezala hasten dira jendeari aurkeztu behar zaiola lana ahaztuz».

Bihar, ikasitakoa jendaurrean

Goizetan gaztetxoak ari badira, arratsaldetan helduen txanda izaten ari da. Euren kasuan ere, paper antzerkia egiten ikasiko dute, baina ipuin batean oinarritu ordez, norbere bizitzaren pasarte bat irudikatuko dute.

Gaztetxoak nahiz helduak artista bihurtuta ikusteko aukera bihar izango da, 16:00etatik 18:00etara, orduan hartuko baitute mugimendua euren pertsonaiek. Ikasleek gain, irakasleak, hau da, Ana Laura Barrosen ere hartuko du parte biharko emanaldira, bere antzezlanteko batekin.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Larunbatean eta igandean produktuak merkeago erosteko aukera egongo da

Merkataritza » 'Stock and Braderie' azoka berezia aurkeztu dute Igarondo eta Alde Zaharra Dendak elkarrekin.

ASIER IMAZ

Tolosako merkataritza elkarteek, Igarondok eta Alde Zaharra Dendak, azoka berezia antolatu dute asteburu honetan: *Stock and Braderie*. Ekimen honi esker, Tolosara hurbiltzen direnek produktu merkeagoak erosteko aukera edukiko dute.

Agustin Adurizek, Komertzio teknikariak, Tolosa 2015en, Udaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza eskertu nahi izan zituen atzo, *Stock and Braderie*-ren aurkezpenean.

Stock-a, Beotibarren

Duela lau urte antolatu zuten lehen aldiz Stock-aren azoka Tolosan. Bi urtez behin ospatzen den



Itxaropena Elordi, Agustin Aduriz eta Eli Hilario. ASIER IMAZ

ekimena denez, aurtengoa III. edizioa izango da. Igarondoko kidea den Eli Hilariok azaldu zuenez, larunbatean eta igandean, Beotibar pilotalekuan, hainbat berrikuntza aurkituko ditu erosleak: «Alde batetik, lehen aldiz, sareratzko bat jarri dugu aurtengoan. Beotibarrera gerturatzen denak euro bat ordaindu beharko du, nahiz eta txar-

tel honekin ondoren, herriko 16 tabernetan, pintxo bat doan edo frontoiko txurrerian 6 txurro lortu ahal izango dituen. 16 urtez azpikoek ez dute sarerarik ordaindu beharko».

Neurri berri honen arrazoiak, honela azaldu zuen Hildalgok: «Jende asko ikustera bakarrik joaten da eta honela erostera doanak lasaia-

go ibiltzeko aukera edukiko du. Taberna zerbitzua ere egongo da pilotalekuaren barnean. Guztira azoka honetan 20 komertzio elkartuko dira, Tolosakoak, Goierrikoak eta Donostiatik etorriak».

Produktuei dagokienaz, mendiko arropa, haurrentzako eta helduentzako arropa eta musika CDak egongo dira.

Etzi 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik Stock-a eta igandean 10:00etatik 18:00ak arte.

Braderie, larunbatean

Itxaropena Elordik bere aldetik, azokaren bigarren ekimena azaldu zuen. Braderie antolatzen duten lehen aldian den arren, urtero antolatzen jarraitzeko asmoa iragarri zuen Alde Zaharra Dendak elkarteko kideak. «Herriko 28 dendak hartuko dute parte. Eguraldi ona egiten baldin badu, kanpoan hainbat produktu jarriko ditugu. Hauek dendan baino prezio merkeagoan egongo dira eta ezin-ekin dira itzuli. Ekimen hau larunba-

tean bakarrik jarriko dugu, 10:00etatik 20:00ak arte eta eguerdian ere dendak zabalik edukiko ditugu».

Jendeak Braderie aukerak non dauden jakiteko, 2.000 plano banatuko dituzte Tolosako hainbat puntutan. Erosleek berriz txartel bat betetzeko aukera izango dute 28 denda hauetan. Ondoren zozketa batean parte hartuko dutelarik.

Agustin Adurizek azkenik, bi egun hauetan kontzientziazko kanpaina bat ere egingo dutela azaldu zuen. Erosketak etxera eramateko poltsetan, organo emailea izatearen garrantzia azpimarratu ko baita.

Ekimenari jai kutsua emateko berriz, Bonberenea txaranga ibiliko da kaleetan zehar, larunbatean.

» STOCK AND BRADERIE

Stock, Beotibar pilotalekuan

■ **Etzi, hilak 10.** 10:00etatik 20:00etara.

■ **Igandea, hilak 11.** 10:00etatik 18:00etara.

Braderie

■ **Etzi, hilak 10.** 10:00etatik 20:00etara.

Tolosan eta Leitzan gaur elkarretaratzeak

Emakumeen aurkako indarkeria » Agurainen gertatu zen erailketa salatzeako irtengo dira kalera.

A. IMAZ

Astelehen gauean Agurainen jazo-tako erailketa dela eta, Emakumeon Mundu Martxako plataformak elkarretaratzeak egingo ditu gaur Euskal Herriko hainbat herritan. Horien artean aurkitzen dira Leitzan eta Tolosa.

Tolosan 19:30ean bilduko dira

Triangulo plazan eta Leitzan 20:00etan Lopeneko biribilgunean. Bi eskualdeetako Bilgune Feministako kideek elkarretaratzeetan parte hartzeako deialdia zabaldu diete herritar guztiei.

«Indarkeria sexista»

Agurainen 91 urteko emakume bat hilda agertu zen astelehenean, zauri larriekin. Asteartean hildakoaren biloba atxilotu zuen Er-tzaintzak, gertaerarekin zerikusia zuelakoan. Ezbeharrak nola gertatu zen argitu bitartean, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak ez du kasu genero indarkeriatzat hartu.

Emakumeon Mundu Martxako Plataformatik ordea argi dute: «Nahiz eta komunikabide batzuetan ez den indarkeri sexistatzat hartu, mugimendu feministatik emakumeon kontrako indarkeria kasutzat hartzen dugu. Emakumeon kontra ematen diren eraso guztietan sexismoa inplizituki beti agertzen baita. Hortaz, eraildakoaren emakume izaera eragina izan duela iruditzen zaigu. Herri-zaingo Saila kontuan hartzen ari den hipotesiez gain, hildakoa eta hiltzailearen artean izan zitekeen botere harremana azpimarratu nahi genuke. Emakumeen kontra-

ko indarkeria ez da beti agerikoa. Egiturazkoa den indarkeria da, jendarteak antolatzeke duen erudirik hasi eta gure bizitzako esparru guztietan ematen dena. Patriarkatuak sexuen artean ezartzen dituen botere harremanek ahalbideratzen dute indarkeria sexista eta batzuetan zuzenean ematen da eta besteetan aldiz, zeharka.»

«Nora desagertuta»

Aste honetako gertakariez gain, «Nora gasteiztarrak desagertuta jarraitzen duela» gogoratu dute mugimendu feministatik. «Emakume hau Gasteizko asistentzia zerbitzuen laguntza jasotzen ari zela desagertu zen, baina bere desagertuaren argiketa burutzeko orduan instituzioak utzikierian erortzen ari direlakoan gaude».

Pello Odriozolaren eskatasuna eskatuko dute gaur 19:30ean

ERREDAKZIOA

Aste Santutik itzulerako lehen ostegun honetan, Lizardi elkarteko kideek Pello Odriozola bazkidearen eta euskal presoaren eskatasuna eskatuko dute hilero bezala. Elkarretaratzea 19:30ean izango da Tolosako Plaza Zaharrean.

Zuzenketa. Abel Barriola eta Juan Martinez de Irujoen arteko partida ez da hilaren 10ean izango, atzoko zenbakian agertzen den bezala, hilaren 18an baizik. Oinatz Bengoetxea eta Asier Olaiolaren arteko hileren 17an, larunbatean, jokatuko da.

Diru-laguntzak eskatzeko aukera hilaren 26ean amaituko da

Kultura » Aurtengoan kultur taldeen ezohiko jardueretarako ez du diru-laguntzarik emango Tolosako Udalak

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalak onartu du kultur ekintzak eta jarduerak finantzatzeko diru laguntzen arautegia (http://www.tolosakoudala.net/2010/04/08/ficheros/4_4836eu.pdf). Aurtengo deialdiaren ezaugarriak hauek dira:

Eskaerak udaletxean bertan egin beharko dira, Plaza Zaharra 6 helbidean, beraz.


Epea noiz amaituko den jakiteko, deialdia noiz argitaratu zen jakin behar da, hurrengo egunetik hasi baitziren zenbatzen. Hau da, data horretatik aurrera 30 egun kontaktuko dituzte. Deialdia martxoaren 25ean argitaratu zenez Gi-

puzkoako Aldizkari Ofizialean, apirilaren 26ean amaituko da epea. Diru-laguntzak lortu ahal izateko astelehenerik ostiralera zabalduko ditu ateak Tolosako Udalak, 08:00etatik 14:00etara. Epea beraz hilaren 26ean, astelehenean, 14:00etan amaituko da.

Aurtengo deialdian, diru laguntzak kultur taldeen ohiko jardueretarako soilik emango dira, eta ez da izango laguntzarik ezohiko jardueretarako.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko komunikabide batek
Kazetaritza edota Euskal Filologian lizentziatuak
edo ikasleak behar dituzte lan poltsa osatzeko.

Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidera



Bi erakusketa batean

Villabona » Margolanak eta teknika nahasiarekin egindako obrak jarri ditu ikusgai Idoia Iturri artistak Erreka tabernan.

IMANOL GARCIA

Villabonako Erreka tabernan Idoia Iturriren erakusketa ikusgai dago maiatzaren erdira arte. Artistairuindarrak bilan mota jarri ditu. Alde batetik akrilikoan egindako margolanak, orain hiru urte inguru egindakoak. Bestetik, teknika

nahasia erabiliz egindakoak, aurtengoak. Villabonan dituen lagun batzuen bitartez jakin zuen Erreka tabernan erakusketak jartzeko aukera zegoela. Bertan jarri dituen obrak salgai ditu Iturrik.

«Nire irudimenean sortutako irudi eta pertsonaia fantastikoak,

komikiarekin harremana izan dezaketen, ametsen munduarekin irudikatu dituzte margolanetan. Teknika nahasia erabiliz egindako obrak, berriz, «irudi bat hartu dut, interesatzen zaidana, eta marrazkiaren bitartez jabetzen naiz hortaz. Gero testuingururik ateratzen dut eta moldatzen dut, giro bat ematen diot, collage-a edo beste material batzuen bitartez».

Margoetan ikusten den mundu hori «fantastikoa, surrealista da, irudimena aske utziz atera dena»,

zehazten du Iturrik. Beste obratan «gauzak konkretuagoak» sartu nahi zituen. «Irudiekin hasten nintzen, argazki bat izango balitz bezala eta gero ematen diot zentzu bat, batzuetan zehatzagoa, beste batzuetan irekiagoa».

Zentzua eman

Iturri ez da teknika figuratiboaren zalea, erakusketan agertzen denez. «Egiten dudanari zentzu bat ematea gustatzen zait», dio.

Tabernak erakustoki bezalajen-

dearekin «harreman zuzena» izateko aukera ematen diola azaltzen du artista iruindarrak. «Galerietara joaten direnak ohitura dute erakusketetara joateko. Taberna batean zehatzagoa da, nolabait esateko, joaten den guztiak du aukera ikusteko». Iturrik interesgarria deritza jakitea erakusketaz zer pentsatzen duten galerietara joateko ohitura ez dutenek. «Tabernako jabeak esan dit jendea atentzioa deitu diola eta hori bada zer-bait», azaltzen du.

Txintxarri Abesbatzaren doinuak Evora herriraino iritsi dira

Alegia » Portugaleko Evora herriko abesbatzak gonbidatuta, Aste Santuan izan dira, besteak beste, euskal abestiez osatutako kontzertua emanez.



Turismoa egiteko aukera izan dute Abesbatzakoeak. Argazkian, Lisboan. HITZA

ERREDAKZIOA

Duela egun batzuk itzuli da Alegia-ko Txintxarri abesbatza Portugalgo lurretatik. Berrogeita hamargarren urteurrena ospatzeko sei eguneko bidaia egin dute Portugalera eta joan den ostegunean kontzertua eskaini zuten bertako Evora herrian. Hantxe izan zen Txintxarri abesbatza ordubeteko emanaldia eskaintzen.

Duela hilabete batzuk jarri ziren harremanetan Coral Evorarekin. Portugalgo abesbatza hori ardura-

tu zen apirilaren lehen alegiarrek eskaini zuten kontzertua antolatzeko. Hotel Convento do Spinheiroko areto dotorean eskaini zuten emanaldia. Garai batean komentu izandakoa, orain eraberrituta dagoen luxuzko hotela da. Estilo desberdinetako kantuak eskaini zituzten bertan txintxarriek ehun bat lagunengana. Antonio Al-

ves Coral Evorako kidea izan da zubilana egin duena.

Gaueko bederatzit'erdietan hasi zen kontzertua. Kantatuz sartu ziren abesbatzakoak aretoan. Alegiarrek portugesez egin zituzten agurreko hitzak. Hamabost bat kantuz osatutako emanaldia izan zen. Kantu asko euskal abesti herrikoiak edota euskal konpositore-

ek eginiko obrak izan ziren. Beste batzuk, aldiz, gospel kantuak edota pop doinueta oinarritutakoak. Oro har, kantu alaiak eta dinami-koak izan ziren.

Hasiara batean entzuleak harridura puntu batekin egon baziren ere, berehala harrapatu zituzten Txintxarri Abesbatzakoeak euren kantuen hatzparretan. Eta bukarerako txalo zaparrada ederrak jaso zituzten entzuleen aldetik. Xefe Balerdi taldeko bakarlariak samurtu zituen entzuleak Gabriel Olaizolaren *Haurtxoa sehaskan* sehaska kantarekin, baita algaraka jarri ere Alegiako trapeoaren buila eta doinuarekin. Xabier Mingo beste bakarlariak Argentinara aldera eraman zituen une batez entzuleak Carlos Gardelen *El día que me quieras* abestiarekin. Bitarte horretan gartsu aritu ziren Maria-je Rekondo eta Garbiñe Orbegozo alegiarrek, bata organoarekin laguntzen, bestea abesbatza zuzentzen.

Alegiarrek, portugesez hitz egi-

nez, oparia eman zieten Coral Evorako ordezkaritari, Antonio Alvesi, eta kontzertua eskaintzeko tokia prestatu zien Hotel Convento do Spinheiroko zuzendariari. Jon Aizpurua korukideak egurren egindako taila bat eta euskal jakiak eta edariak eman zizkieten, Alegiako oroigarri gisa. Maorien doinu eta dantza batekin agurtu zituzten entzuleak.

Kontzertua amaitu eta berehala Lisboarako bidea hartu zuen abesbatzak. Bidean ez zen kanturik falta izan. Portugalgo hiriburuan pasa dituzte gainerako egunak Alegiako abeslariak.

Lisboako bazterrek ezagutzen

Lisboa eta inguruak ezagutzeko aprobetxatu dute bidaia abesbatzakoeak: Obidos, Iberiar penintsularen lurmutur ezagunetarikoak (Cabo da Roca), Estoril eta Cascaisera joan ziren.

Lisboako hotelean ere ez zen kanturik falta izan. Taldeko Aitor Iraola pianista gaztearen laguntzarekin, eta hotelean bertan ostatu hartuta zegoen Agoizko abesbatzarekin batera, euskal doinuak bete zuten hoteleko sarrera Ostiral Santu gauean. Kale bazterretan atzera eta aurrera ibili ondoren, astelehenean itzuli ziren Euskal Herriari Txintxarri Abesbatzakakoak.

«Haurrek errazago erakusten dituzte euren emozioak kantuaren eta jolasaren bitartez»

IDOIA IRAOLA » Txintxarri Txiki Abesbatzako zuzendaria

IMANOL GARCIA

2001 urteaz geroztik Txintxarri Txiki Abesbatzako zuzendaria da Idoina Iraola (Tolosa, 1982). Alegialdeko haur eta gaztetxoei ahotsa lantzen erakustean arduratzen da eta Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartean antolatzen dituen proiektu batzuetan parte hartzen du. Horien artean, *Kantuaren eta jolasaren tailerraren* irakaslea izango da. Tailer horretan izena emateko Alegiako kultur etxera jo behar da eta azken eguna horretarako bihar da.

Tailerraren izenburuak dioenez, musika eta jolasa uztartuko dira. Nola izango da hori?

Musikak alor asko ditu, oso zabala da. Beraz, ez gara osotasunean ariko baizik eta ahotsa eta abestian murgilduko gara jolasaren bidez. Kontuan izan behar da 6 eta 7 urteko haurrei zuzendutako tailerra dela. Oso adin estimagarria da eurentzat. Musikarekin, kantuarrekin lehen harremana izaten hasten dira. Ikasteko gogoz daude, baina ezin zaie kantua diziplinazko modu batean erakutsi; haurrak izaki, jolastu egin behar dute. Jolasak lagunduko die kantarako bidea egiten. Horrekin batera, erritmoa eta mugimendua behar dituzte, eta horretarako dantza eta perkusioaz baliatuko gara. Bertan

abesti ezberdin eta erakargarriak landuko dira jolasarekin batera.

Zein musika tresna mota erabiliko dituzte?

Haurrek gehienbat perkusiozko instrumentuak erabiliko dituzte, batez ere beraien adina eta tailerraren iraupena kontuan hartuta egokienak iruditzen zaizkigulako. Marakak, klabeak, triangeluak... erabiliko ditugu beste zenbait musika tresnen artean.

Garrantzitsua dirudi haurrak musikari murgiltzea jolasaren bitartez. Zergatik?

Lehenik eta behin garrantzitsua iruditzen zaigu haurrak musikari murgiltzea, beraien hezkuntzan musikak onurak ekarriko dituelako. Beraz, gure kasuan, ahotsa eta abestiaren munduan lehenengo pausoak emateko bide erakargarri bat bilatzen saiatu gara eta horregatik lotu dugu ahotsa eta abestia jolasarekin. Horrez gain, haurrak direnez, hitzaren errekurtoa ez dute oraindik oso garatu, errazago erakusten dituzte euren emozioak kantuaren eta jolasaren bitartez. Oraindik oso txikiak badira ere, taldearen pertzepzioa hartzen hasten dira eta taldean aritzeak duen garrantzia jabetzen hasten dira.

Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako urte bitarteko



HITZA

haurrei zuzenduta dago. Zergatik aukeratu da adin tarte hori?

Beste jarduera guztietan bezala kantuan ere garrantzitsua izaten da haurrak txikitatik mundu horrekin harremana izatea. Kultura ere globalizatua dagoen mundu

honetan, sarritan komunikabideen bitartez jasotzen duten ereduak ez da egokiena, ahotsaren erabilerrari dagokionez. Garrantzitsua iruditzen zaigu txiki-txikitatik ahotsa ondo erabiltzearen oinarriak behar bezala finkatzea. Hori-

xe da, modu xumean bada ere, Txintxarri Abesbatza kulturelkarrearen nahia. Ilusio handiz ari gara proiektu hau antolatzen.

Horrelako tailerrik egiten da inguruan?

Gurea oso behin behineko tailerra izango da, apirilean hasi eta ekainaren amaieran bukatuko dena. Gure tailerlean kantatu, dantzatu, perkusioa jo eta jolastu, ez dute besterik egingo. Ez dute azterketarik pasa beharrik izango; eurek ondo pasatzea da helburu nagusia. Gainera, haur horien gurasoek ez dute ezer ordaindu behar. Tailerlean izena ematera gonbidatzen eta animatzen ditugu Alegialdeko haur guztiak. Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartetik garrantzitsua iruditzen zaigu haurrek ahotsarekin eta abestiarekin duten berezko harreman hori bultzatzea. Bestalde, gaur egun haurrek ekintza askotan parte hartzeke aukera dute, baina gutxi izaten dira kantarako aukera eskaintzen dutenak.

Jolastean gain, tailer bukaerarako emanaldia prestatuko duzue. Nolako izango da?

Ilusio handiz antolatzen ari garen emanaldierakargarri bat izango da Alegia eta inguruak herrietako jende guztientzat. Bertan gaur egungo erreperatorioko abestiak entzungo ditugu, baita beste lurraldeetako abestiak ere. Haurrak zein helduak, bertaratzen diren guztiak dantzan jarriko ditugu. Baina ez dugu den-dena konturatu, etor zaitezte ekaineko kontzertura eta zuek ikusi eta gozatuko duzue.

Alonso bikain Michelin Power Cup-eko lehen lasterketan

Ibarra » Series 600 mailan bigarren egin zuen, lasterketan 3. eta beraz, Ibarra Racing-ek helburuak «berrindartu» ditu.

ERREDAKZIOA

Pasa den igandean hasi zen Barzelonako Castelloli zirkuituan 2010eko Michelin Power Cup txapelketa eta lehen lasterketa honetan Ibarra Racing-eko Koldo Alonsok 2. postua lortu zuen Series 600 izeneko mailan. Horiek horrela, Alonsok saillapen nagusiko postu bera eskuratu zuen eta taldeak txapelketa honetan zituen helburu guztiak berrindartu zituen. Lasterketa honetan 14 bira eman behar dira eta «oso zaila» dela dio ibartarrak. Izan ere, larunbat gauean euri asko egin zuen Herrialde

Katalanetan eta ondorioz igande goizean zirkuitua ur putzuz beteta zegoen.

Igandeko entrenamendua

Alonsok, beraz, ezin izan zuen larunbat arratsaldeko entrenamendu libreetan parte hartu eta igande goizeko entrenamenduekin konformatu behar izan zuen. «Baina baldintza hauetan, goizeko bi entrenamendu libreetan parte hartzeari uko egin zion taldeak, ur gehiegi zegoen eta arrisksuegia zen lehorreko kubierteekin denbora on bat lortzen saiatzea; eguerdiko kronometratuei itxarotea besterik ez zen geratzen, eguzkiak ordu pare batetan zirkuitua lehor zezakeenaren esperantzarekin, laburbildu du.

Aurreneko kronometratuentzat zirkuituan zeuden putzuen kokapena ikastea izan zen helburu



Alonso podiumean eta lasterketan parte hartzen zuen bitartean. HITZA

bakarra, arrisksuegia baitzen azkarrago joatea. Bigarren kronometratuetan berriz, baldintzak asko hobetu ziren, eguzkia atera eta bizipahiru ur putzu besterik ez zirelarik geratu.

«Konfiantza gehiagorekin taldea 3. sailkatu zen irteerarako, aurretik gidari bakarra zuen Series 600 mailan», argitu du.

Lasterketaren irteeran 3. postua mantendu zuen Alonsok, baina aurreneko biran 4. postura jaitsi zen eta bertan mantendu zen, 6. biran aurrean zuen gidaria putzu bat zapalduta lurrera joan zenean 3. lekua berreskuratu zuen.

Baina atzean zuen gidaria bira gutxi batzuetara gerturatu zitzaion, aurreratzeko saiakerari aurre egin behar izan ziolarik, lau bira besterik geratzen zelarik lasterketa bukatzeko.

Postu onak

Azkenik, erritmoa igoaz 4. sailkatua atzean utzi zuen eta 2. ari asko gerturatzera lortu zuen, lasterketako bira azkarretik 2 ehunekoetara geratuaz eta irabazletik 3 segundotara helmugaratuz 3. lasterketan eta 2. Series 600 mailan.

«Txapelketa ezin hobeto hasi da taldearen helburuentzako, hurrengo lasterketa hilaren 25an izango da Albaceteko La Torreçija Zirkuituan», gogoratu du.

Antzerkia bihar Larte kultur etxean

ERREDAKZIOA

Haurrei zuzenduriko emanaldia izango da bihar Elduaingo Larte kultur etxean 17:30etik aurrera.

Txalo taldeak *Ali, haren amona eta alfonbra hegalaria* izeneko antzezlan eskainiko du, Begoña Bilbao zuzendutako eta Alfonso Diez eta Aitor Fernandínok antzezitutako lana, hain zuzen.

Mila gau eta bat gehiago laneko

ipuinetan oinarritzen da bihar ikusi ahal izango den ikuskizuna.

Ekialdeko istorioak

Bi antzezle protagonistek hainbat pertsonaia gorpuztuko dituzte. Clownen jolas eszenikoan oinarrituz, juglareen eta saltzaile ibiltarien *savoir faire* ak adin guztietako ikusleak barnertatuko ditu ekialdeko ipuinen alegiazko munduan.

Herrialde desberdinetan lankidetzak proiektuak garatzeko aukera

ERREDAKZIOA

Eusko Jaurilaritzak Euskadiko Gazteak Lankidetzan egitasmoa abiarazi du aurrean. Honen bidez Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 20 eta 30 urte bitarteko 100 pertsona gehienez hainbat herrialdeetan lankidetzak proiektuetan parte hartzea joateko laguntza emango du. Programaren helburua «Euskadiko gazteen artean elkartzunaren

balioa sustatzea eta garapen lankidetzarako ekitaldietan sentsibilizatzea» da. Aurreko edizioan 93 pertsona hautatu zituzten eskaera egin zuten 455 gazteen artean.

Izen-ematea atzo hasi zen eta maiatzaren 6an amaituko da. Internet bidez egin daiteke eta maiatzaren 11n aurre hautatutako gazteen izen abizenak emango dituzte. Aurre hautatutakoak topaketa

maitzaren 14, 15 eta 16an izango da Barrian eta maiatzaren 18an hautatutako izen-abizenak jakinaraziko dituzte. Informazio eta orientazio aldia maiatzaren 29 eta 30ean izango da Barrian.

Informazio gehiagorako edota izena emateko webgunea zein den jakiteko sartu Ibarako Udalaren webgunean; www.ibarrakouda-la.net.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Larunbatean II. Euskadiko Liga jokatu da Olaederran

Villabona-Zizurkil » 16:00etatik aurrera, Euskadiko Kadete eta Junior mailako 33 pultsulari lehiatuko dira.

ERREDAKZIOA

Etzi, hilak 10, Villabonako Olaederra Kiroldegian halterofiliako Kadete eta Junior mailetak II. Euskadiko Liga ospatuko da. 16:00etatik aurrera hasiko dira pultsulari gazteak lanean eta bertan, Euskadiko 33 kirolarik parte hartuko dute. Beraz, halterofilian maila ezin hobea duten pultsularien arteko lehiatzeko aukera izango da.

Bestalde martxoko azken aste-buruan, Zarautzen Gipuzkoako Senior Txapelketa ospatu zen. Eta

bertan Danena-Olaederra Taldeko pultsulariek parte hartzeaz gain emaitza ezin hobek eskuratuta itzuli ziren etxera. 62 kiloko kategorian, Ekaitz Kortajarenak lehenengo postua eskuratu zuen. 69 kiloko kategorian, Jon Sasiain izan zen lehen sailkatua. 77 kiloko kategorian, lehen postua Francisco Gonzalezek eta bigarrena, Patxi Hernandezek eskuratu zuten. 85 kiloko kategorian ere lehen postua eskuratu zuen Javier Aranburuk. 94 kiloko kategorian, Teddy Martinez izan zen lehen postuan sailkatu zena eta 105 kiloko kategorian, Daniel Legorburu bigarren postuan sailkatu zen.

Banakako sailkapen orokorrean berriz, lehenengo Teddy Martinez, bigarren Ekaitz Kortajarena eta hirugarren Francisco Gonzalez sailkatu ziren.

Junior mailan, Gijonera

Egun berean, baina arratsaldeko saioan, Araban, Euskadiko Junior Txapelketa ospatu zen, bertan Danenako pultsulariek emaitza hauek lortu zituzten: taldekako sailkapen orokorrean, lehenengo Gipuzkoa sailkatu zen eta pultsulari guztiak Danenakoak izan ziren, Iñaki Zubelzu, Adrian Sasiain, Igor Sasiain, Mikel Quintana eta Iker Hernandez. Bigarren Nafarroa, hirugarren Araba eta laugarren Bizkaia sailkatu ziren.

Banakako sailkapen orokorrean berriz, Danenako pultsularien artean, bigarren Igor Sasiain, hirugarren Iker Hernandez eta laugarren Mikel Quintana sailkatu ziren, hurrenez hurren. Pultsulari guzti hauek, maiatzaren 1n Gijonen, ospatuko den Espainako Junior Txapelketarako sailkatu dira.



Irailaren Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten Villabonan bertan. A. IMAZ



'Doraemon' buruhandia egin nahian

ZIZURKIL » Etxeko txikiak oraindik Aste Santuko oporretan daudela eta, atzokoan Aurrera Plazako lokalean Buruhandi tailerra izan zuten. Bertan, festa eta jai giroa izaten den egunetan hain gustura ateratzen

diren buruhandiak egiten ikasi zuten. Bakoitzak bere ideia eta irudimena buruhandian gorputuz. Gaur Kirol Liga izango dute; futbol partiduak jokatu dituzte Villabonako Errebote Plazan 16:30etik aurrera. E. MAIZ

Gutuna

Potto: 64 urte Euskal Herriaren askatasunaren alde leial, beti

Alegiako ezker abertzaleak oso gertuko eta lagun izan du beti *Potto*. Lagun leial eta aberkide zintzoa izan da bera. Horregatik gaur, hemen, Alegiako ezker abertzaleak publikoki aitortza hau egin nahi dio. *Potto* Euskal Herriaren aldeko askatasunaren alde dena eman du tenen artean, Euskal Herriko zeru gainean, izar gorri bat gehiago izango da. Alegian bezalaxe, mai-tekorra eta eskuzabalekoa, han ere.

Negar egin diagu, ez diagu ukatuko, nork ez du bihotzean min

sentitzen lagun eta aberkide handi bat galtzen duenean. Orain ordea, gure malkoak, Herri honen askapen borrokan aurrera egiteko gosalinarik hoberena izango dituk. Hik desio huen moduan. Aurrera beti, herri honi zor zaion azken eskubidearen aitortza bermatu artean.

Euskal Herria maite baitiagu, bakean eta justizian. Eta hona gerra egitera etorri hituen haiekuler-tu beharko ditek hori noizbait, hemen herri eta nazio handi bat dagoela, martxan.

Eskerrik asko *Potto*. Maite hau-gu. Maite zaituztegu.

Joxe Manuel Oartzabal. Alegiako ezker abertzaleko zinegotzia.

Egaña eta Lizasorekin bertso bazkaria

Alegia » Hilaren 17an izango da Kultur Etxean. Txartelak 20 euroren truke Kultur Etxean, Iskiña eta Jubilatuen tabernan daude.

ERREDAKZIOA

Azken urteotan bezala, Zazpi Astoren Gaínean bertsozale taldeak bertso bazkaria antolatatu du hilaren 17rako.

Aurten gainera, herriko Txintxarri Abesbatzaren 50. urteurren dela eta, beraien ekitaldi berezietan sartuko da bertso bazkaria hau, eta beti bezala Udalaren la-

guntzarekin batera, elkarlanean antolatua izan da.

Larunbatez izango da eta bertsolari handiren bertsoez gozatzeko aukera izango da. Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak izango dira alegiarrekin kantuan ariko direnak.

Iaz bezala, bazkaria Kultur Etxean izango da eta bertan bazkaldu eta bertso eta umore onaz gozatu nahi duen orok aukera izango du bertan izateko. Horretarako txartelak dagoeneko salgai jarri dituzte, 20 euroren truke, Kultur Etxean edota Jubilatuen eta Iskiña tabernetan erosi ahal izango dira.

Eskualdeko irabazle ugari Ordiziako Artzain Eguneko lehiaketetan

Abeltzaintza » Ardi eta Ahari lehiaketako sari asko joan dira Abaltzisketa, Beizama, Altzo eta Villabonara.

ERREDAKZIOA

Egun berezia ospatu zuten atzokoan Ordizian, izan ere Artzain Egunean, eta urtero legez lehiaketak, Idiazabal Gazta berriaren aurkezpena eta orokorrean, giro ona izan zen herrian.

Aipatu bezala lehiaketa ugari egin zituzten Artzain Egunean eta horietako sari ugari eskualdera ekarri zituzten.

Ardi eta Ahari Lehiaketan Mutur Beltzen eta Mutur Gorrien

lehiaketa izan zen eta lehenengo sari guztiak goierrin geratu baziren ere, Mutur Gorrien saillean sari guztiak gurean geratu ziren.

Arkume ahariko lehen saria Abaltzisketako Jokin Ipintzak irabazi zuen eta bigarrena Beizamako Julian Belokik. Bildots aharretan, aldiz, lehen saria Beizamako Julian Belokirentzat izan zen eta bigarrena Altzoko Migel Amianorentzat. Bukatzeko Ahari Zaharrenarenatalean lehen saria Beizamako Julian Belokik irabazi zuen eta bigarrena Villabonako Joxepa Goñik. Bestalde, itxurari eta esne ekoizpenari erreparatuta Ele Elkartek ematen dituen artzainen sariak ere banatu zituzten eta errape erakusketan Olaberriako Aizpea Elkartek eraman zuen saria.



13°
7°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	OSKARBI
BEROENA	15°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Aisialdia

■ **Tolosa.** Iturriza jubilatutako elkarteak Toledora irteera antolatuko du hilaren 12tik 17ra. Informazioa eta izen-ematea elkartearen edo 943-69 83 30 zenbakian.
■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkarteak Extremadurara antolatuko du irteera hilaren 17tik 22ra, erkidegoko hiri nagusienak eta Jerte bailara bisitatuz. Izen-ematea, elkartearen bertan egin daiteke.

Deialdia

■ **Tolosa.** San Esteban Elkarteak urteroko batzar orokorra egingo dute igandean, hilak 11, 11:00etan.

Elkarretaratzeak

■ **Leitza.** Leizaldeko Bilgune Feministak elkarretaratzea deitu du Agurainen izandako hilketaren salatzeko. 20:00etan, Lopeneko birlagunean.
■ **Tolosa.** Bilgune Feministak elkarretaratzea deitu du Triangulon, 19:30etan, Agurainen gertatutako hilketaren salatzeko.

Ipuin-kontaketa

■ **Ibarra.** Apika taldekoen *Mundu berria* lana Kultur Etxean, 11:30etan.

Kirola

■ **Tolosa.** Tolosa Kup-eko izen-ematea bihar amaituko da. Kultur Etxean egin behar da.

Zinema

■ **Tolosa.** *Solo Dios lo sabe* Leidorren 19:15etan eta 21:45etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Larraia M.I., Elbarren 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Txotxongilo emanaldiari adi

IBARRA ■ Lehen eguneko emanaldia bertan behera geratu bazen ere, Ibarako haur eta gaztetxoek atzokoan izan zuten iragarritako txotxongilo emanaldia ikusteko aukera. Datozen egunetan 11:30etan Benito Izagirre kultur etxean izango diren ikuskizun guztiak Kultura eta Gazteria Batzordeak antolatuko ditu.

Pazko Asterako prestaturiko egitarauaren baitan, eta atzokoan Bihar taldearen *Hau natura! Aire, lurra eta ura* lana ikusi ahal izan zen. Gaurkoan aldiz, Apika taldearen ipuin kontaketa saioa izango da 7 urtetik gorakoentzat aipatu ordu eta lekuan. A. IMAZ

A Agurrak



Zorionak!
Arkaitz Agirretxe Aroza (Altsasu). Gaur 7 urte, muxu bat familia eta aiton-amonen partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

